



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

**Arrasateko Euskara Biziberritzeko Plan
Nagusia**

**Plana–Proposamena Arrasateko Udaleko
Udalbatzarrarentzat**



AURKIBIDEA

1. TXOSTENAREN AZALPENA.....	2
2. EBN SORTZEKO PROZESUA	2
2.1 FILOSOFIA	2
2.2 HAUSNARKETA ESTRATEGIKOA.....	3
2.3 PLAN ESTRATEGIKOAREN ANTOLAKETA.....	3
2.4 PLAN ESTRATEGIKOA NOLA SORTU DEN	4
2.5 LAN TALDEAK	4
3. MISIOA.....	6
4. ESZENATEGIA	7
4.1 MERKATUA	7
4.2 BALIABIDEAK.....	9
5. IKUSPEGIA.....	9
5.1 ETXE BARRUKO ERABILERA	10
5.2 ETXETIK KANPO	10
5.3 ERAKUNDE PRIBATUEN ESKAINTZA.....	10
5.4 ERAKUNDE OFIZIALEN ESKAINTZA.....	11
6. ESTRATEGIA.....	11
6.1 MERKATUA	11
6.1.1 Bereiztu ditugun merkatu-segmentuak.....	12
6.1.2 Heldutzat eta umetzat zer hartu dugun.....	12
6.1.3 Erakundetzat zer hartu dugun	12
6.2 GAITASUNAK, PROZESUAK ETA BALIABIDEAK.....	12
7. PLAN ESTRATEGIKOA.....	14
7.1 ESPARRUAK.....	14
7.2 2006. URTEA: OINARRIAK ETA ESPARRUEN EGOERA	15
7.3 2007. URTEKO NORABIDEA.....	15
7.4 2008-2010. URTETAKO NORABIDEA	16
7.4.1 Etxe barrua eta aisialdi librea.....	16
7.4.2 Helduen eta gazteen aisialdi antolatua	16
7.4.3 Umeen aisialdi antolatua.....	17
7.4.4 Hedabideak.....	17
7.4.5 Derrigorrezko hezkuntza	17
7.4.6 Lantoki txikiak (enpresa txikiak eta jendeari begira lan egiten duten establezimenduak)	17
7.4.7 Euskara Planak	17
7.4.8 Zeharkako jarduerak	18
ERANSKINA: ESPARRUAK BANAN-BANAN	19
ETXE BARRUA ETA AISIALDI LIBREA	19
HELDU ETA GAZTEEN AISIALDI ANTOLATUA	20
UMEEN AISIALDI ANTOLATUA	20
HEDABIDEAK	21
DERRIGORREZKO HEZKUNTZA	21
LANTOKI TXIKIAK	22
EUSKARA PLANAK	23



1. TXOSTENAREN AZALPENA

2004ko ekainean onartu zuen Arrasateko Udalak Arrasaten Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia – EBPN garatzea.

Harrezkero, EBPN-ren Hausnarketa Estrategikoa egin dugu eta Plan Estrategikoa prestatu dugu.

Bi lan horien berri ematen dugu txosten honetan.

Txostena hiru zatitan banatuta dago:

- Bigarren atalean, EBPN sortzeko prozesua azaltzen da: jarraitutako filosofia, egindako urratsak eta orain arteko prozesuan herriko zer entitatek eta pertsonak hartu duten parte.
- Hiru, lau, bost eta seigarren ataletan, berriz, Hausnarketa Estrategikoaren emaitzak biltzen dira: misioa, eszenategia, ikuspegia (helburuak) eta estrategia bera.
- Zazpigarren atalean, EBPNren Plan Estrategikoaren mamia jasotzen da: antolatutako esparruak eta esparru bakoitzeko plana.

Eranskin gisa, esparru bakoitzari buruzko azalpen zehatzagoak datoz.

2. EBPN SORTZEKO PROZESUA

2.1 Filosofia

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia sortzeko irizpide nagusi hauek izan ditugu:

- Lehenengo eta behin, **estrategia** bat izatea, horren arabera antolatuko baitira proiektuak, jarduerak eta hartu beharreko erabaki guztiak.
- Eraginkorrak izatea da helburuetako bat eta, horretarako, Plan Estrategikoa diseinatzerakoan, merkatua esparrutan banatu dugu. Horrela, merkatuari hobeto ekingo diogu, etekinak handiagoak eta garbiagoak izango ditugu eta Plan Estrategikoa bera hobeto kudeatuko dugu.
- **Plan estrategikoa** sortzerakoan osagai guztien **koherentzia** behar da, bai estrategia berarekin, bai osagaiek euren artean: helburuak, proiektuak eta baliabideak.
- Azkenik aipatzen dugu, baina oinarritzekoena da: **partaidetza**. EBPN aurrera eramateko herri eragile askoren lankidetzak ezinbestekoa da. Beraz, EBPNren sorreran euren partaidetza ere ezinbestekoa izan da, egoeraren zehatzago aztertzeko, etorkizunerako proiektu gehiago eta hobek askatzeko, eta etorkizunean proiektuak eta EBPN bera euren egiteko.

2.2 Hausnarketa estrategikoa

Edozein negoziok edo erakundek, modu onean bere bidea egiteko, helburu argia behar du, norabide bat.



Helburu orokorraz edo negozioiaren **misioaz** gainera, epe ertaineko helburua ere zehaztuta izan behar du; hau da, **ikuspegia**. Horrek adieraziko digu epe ertainera (lau, sei... urtera) erakunde horrek non ikusten duen bere burua: non egon beharko lukeen, nora heldu beharko lukeen.

Hirugarren hanka **estrategia** da. Eta zer da estrategia? Aurreikusitako ikuspegia lortzeko epe ertainean jarraitu beharreko irizpideak.

Hausnarketa estrategikoa burutzeko egin dugun bidea honela irudikatu dugu:


Misioa-, ikuspegia- eta estrategia-proposamena lantzeaz gainera, eszenategi bat ere marraztu dugu. Eszenategian kokatu ditugu EBPN-n gaur egun eta etorkizunean eragina izan dezaketen faktoreak.

2.3 Plan estrategikoaren antolaketa

Plan Estrategikoa, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, aukeratutako estrategia gauzatzeko modua da. Plana den aldetik, bertan antolatzen dira helburuak, proiektuak eta baliabideak.

Arestian esan dugunez, Arrasateko Euskara Berritzeko Plan Nagusia esparrutan antolatuta dago. Zer da esparru bat? Merkatu segmentu bat erabilgune jakin batean. Esparru bakoitzak izango ditu:

- *4 urterako helburuak.* Helburu hauek estrategiatik hartuko ditugu; eta noizbait ikusten badugu heldzerik ez dagoela, estrategiako helburuak egokituko ditugu.
- *4 urterako plana.* Lau urteko egutegi bat, bere zeregin edo proiektuekin, eta bere baliabideekin.
- *4 urterako plana.* Lau urteko egutegi bat, bere zeregin edo proiektuekin, eta bere baliabideekin.
- *Kudeaketa sistema.* Proiektuak martxan jartzeko, jarraitzeko edota egokitzeko modu propioa. Esparru bakoitzak bere sistema izango du, eta sistema honek EBPNren kudeaketa sistemarekin





lotuta egon behar du.

- *Arduraduna/k. Esparru bakoitzaren helburuak **bere** egiten dituen pertsona edota taldea.*

Azken puntu hau garrantzi handikoa da. Esparru batek, aurrera egiteko, arduraduna behar du; horrela ez bada, ez du merezi horretan inbertsiorik egitea, etekina oso motza izango da eta.

Planik eta zereginik ez badago, aurreneko lana plana bera egitea izango da: gaur eguneko egoeraren azterketa egin, adierazleak bildu, egoera iraultzeko ideiak asmatu eta proiektuak osatu.

Nahiz eta arduraduna eta plana izan, esparru guztiek ez dute garrantzi berbera EBPN barruan. Erabaki egin behar da zein lehenetsi, eta bertara zer baliabide bideratuko den.

2.4 Plan estrategikoa nola sortu den

Arrasateko Euskara Berritzeko Plan Nagusiak helburuak, proiektuak eta baliabideak biltzen ditu, esparrutan antolatuta:

- Estrategiak markatzen du **helburuak** zein izango diren.
- Aurreneko urratsa **proiektuak** asmatzea da. Hasteko, estrategian antzemandako lau esparru nagusiak banan-banan landu ditugu, proiektu ideiak sortu, berriak nahiz lehendik egiten direnak. Lan talde berezietan, ideia horiek landu ditugu, proiektutan bildu ditugu eta esparru bakoitzaren barruan antolatu ditugu.
- Osteen, **esparruak** berrantolatu ditugu. Horretarako, merkatuaren mapa marraztu dugu estrategian agertzen diren faktore nagusiak kontuan harturik: adinak (helduak, gazteak eta umeak) eta erabilguneak (etxe barrua, aisialdia eta lana-eskola; horretaz gainera, administrazioa ere gehitu dugu). Mapa horretara taldeek landutakoa ekarri, eta esparruak berrantolatu ditugu. Esparru bakoitzeko indarrak eta gabeziak aztertu ostean, bakoitzaren ildo estrategikoak markatu ditugu.
- Azkenik, esparruen, proiektuen eta **baliabideen** aurreneko uztarketa egin dugu.

2.5 Lan taldeak

Lan hau guztia egiteko herriko hainbat entitatetako ordezkariak osatutako lan-taldeak izan ditugu gurekin, Arrasateko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren enkarguari erantzunez.

Hausnarketa Estrategikoa eta Plan Estrategikoa prestatzen pertsona hauek hartu dute parte:

- **Ines Aldai:** Arrasateko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren ordezkaria.
- **Iratxe Aranburu:** AUKEAko kirol-teknikaria.
- **Inaxio Arregi:** GOIENAKo zuzendaria.
- **Itxaro Artola:** Arrasateko Euskalgintzaren Plan Estrategikoa – ARREPEko teknikaria.
- **Juanito Barberan:** Arrasateko Udaleko Hezkuntza Saileko teknikaria.



- **Oihana Barrutia:** GATC-ko teknikaria.
- **Joxe Felix Diaz de Tuesta:** Arrasateko Udaleko Euskara Zerbitzuko burua.
- **Narrea Elortza:** Arrasateko Goi Eskola Politeknikoko aisialdi dinamizatzailea.
- **Elena Errasti:** ARIZMENDI Ikastolako batxilergoetako arduradun orokorra.
- **Ander Etxeberria:** AED-ko lehendakari ordea.
- **Joxe Etxeberria:** Arrasateko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren ordezkaria.
- **Joseba Ezpeleta:** AED-ko lehendakari-ohia.
- **Jon Garai:** Arrasateko Udaleko Euskara eta Kultura Sustapena Arloko burua.
- **Inaxio Garro:** Euskalan-eko lehendakari-ohia.
- **Blanka Jauregi:** Arrasateko Udaleko Gazteria Saileko teknikaria.
- **Dani Larrea:** EMUNeko zuzendaria.
- **Aintzane Lasa:** Arrasateko Udaleko euskara-teknikaria.
- **Eduarne Marañon:** Arrasateko Anbulategiko Lehen Mailako Atentzioko unitateburua.
- **Zigor Masip:** AED-ko lehendakaria.
- **Ainhoa Merinero:** Arrasateko Hiper Eroskiko Hipermerkatuko Elikagaiak eta Ehunikiak Alorreko burua.
- **Joxe Mari Muxika:** Euskararen normalizazioan aditua.
- **Javier Retegi:** Mondragon Unibertsitateko Eskola Politeknikoko zuzendaria.
- **Santiago Ugarte:** Arrasateko Institutuko zuzendaria.
- **Izaskun Uribesalgo:** ATHLONeko Formakuntza eta Ekintzen Antolaketa Saileko arduraduna.
- **Karmele Zuatzubizkar:** Arrasateko Udaleko euskara-teknikaria – EBPN-ren arduraduna.

Horietaz gainera, zenbait lan-talde berezitu ere jardun dira gurekin eta horietan pertsona hauek, besteak beste, hartu dute parte:

- **Mariatxen Aranzabal:** Aranzabal etxetresna elektrikoak.
- **Joxe Antonio Axpe:** Cáritas.
- **Iker Barandiaran:** GOIENA.
- **Ima Elexpuru:** EMUN Koop. E.
- **Imanol Elortza:** GOIENA.
- **Rafa Etxabe:** Mugarri automobilak.
- **Marga Garmendia:** Arrasateko Udaleko enplegu-teknikaria.
- **Arantzazu Lagunilla:** GOIENA.
- **Miren Lasagabaster:** Lasagabaster.
- **Jasone Mendizabal:** Euskararen normalizazioan aditua.
- **Jose Luis Uribarren:** EKIDE S.L.



Beste hauekin ere harremanetan jarri gara EBPN-ren proiektuan parte hartzeko gonbita egiteko. Oraindik ere lan-taldeetan jardun ez badute ere, interesa erakutsi dute etorkizunean gurekin batera aritzeko:

- **Mila Igartua:** Helduen Heziketa Iraunkorra.
- **Adelaida Maidagan:** Mondragon Lingua.
- **Marta Eizagirre:** Arrasate Musikal.
- **Arantxa Aizpurua:** Merced ikastetxea.
- **Elena Herrarte:** Txatxilipurdi elkarte.
- **Leire Aperribai:** Ekin Emakumeak elkarte.
- **Euskalan elkarte.**

EBPN-ren Hausnarketa Estrategikoa eta Plan Estrategikoaren lanketa bideratzen **Juan Carlos Astiazarán**, IKERLANeko teknikaria, aritu da.

3. MISIOA

Misioan zehaztu dugu EBPN-ren epe luzeko helburua, hau da, Arrasateko Udalak 20 urtera begira zer helburu orokor izango duen.

Hona hemen Eusko Jaurlaritzak EBPN-rentzat erabakitako helburu orokorra eta gure Hausnarketa Estrategikoan Arrasaterako proposatutakoa.

Eusko Jaurlaritza (1998): Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea¹.

Arrasateko Udala (2005): Arrasaten bizi diren euskaldun gazteek ia beti euskaraz egin ahal izatea; eta egitea eta eragitea; alor pribatuan, publikoan eta ofizialean.

<i>Arrasaten bizi direnak</i>	Arrasate udalerrian, erroldatuta ala ez, urteko egunik gehienetan bertan bizi direnak (lo egiten dutenak).
<i>Euskaldunak</i>	Euskaraz egiteko gauza direnak, nahiz eta erdaraz egin.
<i>Gazteak</i>	5 urtetik 45 urtera bitartekoak.
<i>Ia beti euskaraz egin</i>	Arrasateko bizitzaren %66-%100ean. Erakunde ofizialetan 24 ordu 365 egunetan.
<i>Euskaraz egin ahal izatea</i>	Inolako kosturik gabe.

¹ Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia. 52. or. Euskararen Aholku Batzordeak 1998ko ekainaren 24ko Batzorde Osoaren bileran aho batez onetsitakoa. Eusko Jaurlaritzaren 1998ko uztailaren 28ko Gobernu Batzordeak onartutakoa. http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-738/eu/contenidos/informacion/ebpn_sarrera/eu_6196/adjuntos/ebpn14eusk.pdf


4. ESZENATEGIA

Eszenategian aurreikusi dugu EBPN-ren garapenean zer faktorek izan dezaketen eragina, gaur egun eta etorkizunean.

Eszenategian bereiztu ditugu:

- **Merkatua**, hau da, EBPN-k norengan eragingo duen. EBPN-ren merkatu nagusia Arrasateko bizilagunak dira.
- **Baliabideak**, hau da, zer baliatuko dugun EBPN-k merkatuan eragiteko.

Baliabideen artean, batzuk baliabide dira –soilik– eta EBPN-ren helburuak lortzeko baliatuko ditugu, EBPN-k ez du euren eragin nahi. Baina asko, gehienak ez esateagatik, baliabide izateaz gain merkatuaren parte ere badira, hau da, EBPN-k euren eragin behar du bere helburuak lortzeko.



4.1 Merkatua

DEMOGRAFIA	<p>Arrasatek 23.000 bizilagun ditu; bizilagunak galtzen ari den herria da.</p> <p>Arrasateko bizilagunen ezaugarri nagusiak: hirigunean bizi gara, zahartzen ari den herria gara, gero eta familia txikiagoetan bizi gara, erdiok inguru euskaldunak gara, kalean izaten ditugun 3 elkarriketatik 1 euskaraz izaten da.</p> <p>Etorkizunean, biztanleria gero eta zaharragoa izango da eta familiak gero eta txikiagoak. Immigrante-kopuruak gora egingo du eta bizilagun-kopuru esanguratsua izatera iritsi daiteke.</p> <p>5 urte barru, euskaldunak izango gara bizilagunen %60 inguru. 45 urtetik beherakoen artean %70 izango da euskaldun.</p>
AISIALDIA	<p>Aisialdirako eskaintza handia dago eta era askotakoa: guztiontzat antolatutakoa eta adin-talde bakoitzari egokitua.</p> <p>Aisialdiaren zati handia kalean ematen dugu, baina aisialdi-modu berriak agertzen hasita daude: teknologia berriak, merkatal guneetara joatea, etab.</p> <p>Umeentzako aisialdi antolatua euskaraz bermatuago dago, baina adinak gora egiten duen neurrian, orduan eta berme txikiagoa dago.</p> <p>Etorkizunean, aisialdia garrantzitsuagoa izango da: profesionalizatuagoa izango da eta diru gehiago gastatuko dugu. Kalean jende gutxiago ibiliko da.</p>



HEZKUNTZA	<p>Haur-hezkuntzako eta lehen mailako eta bigarren mailako hezkuntzako ikasleek D eta B ereduetan ikasten dute. Batxilergoetan 10 ikaslelik batek A ereduan ikasten du eta lanbide heziketan, berriz, hiru ikaslelik batek.</p> <p>Eskola Politeknikoan gero eta handiagoa da euskarazko eskaintza, lehen zikloan 10 kreditutik zortzi euskaraz dira eta bigarren zikloan, berriz, hamarretik lau pasatxo. Hala ere, karrera-amaierako proiektu ia guztiak gaztelaniaz egiten dira.</p> <p>Hezkuntza ez-arautuko ikastaroak gaztelaniaz ematen dira.</p> <p>Etorkizunean, umeak 2 urte egin baino lehenago eskolaratzeko joera indartuko da, eta eskolako ordutegiak zabaldu egingo dira. Espero izatekoa da gero eta gehiago izatea euskara lehen/ama hizkuntza izango duten ikasleak.</p> <p>D ereduan egindako ikasketak nagusi izango dira, baita lanbide heziketan ere.</p> <p>Eskola Politeknikoko ikasleek hiru hizkuntza menperatu beharko dituzte: euskara, gaztelania eta ingelesa.</p> <p>Etorkizunean, euskaraz jasotako kurtsoen eskaera gehitu egingo da, enpresetan giroa euskalduntzen doan neurrian.</p>
OSASUNGINTZA	<p>Arrasaten, osasungintzako ia eskaintza guztia Osakidetzaren bidez jasotzen dugu.</p> <p>Osakidetzaren euskara-plana abian da eta Arrasateko Anbulategian eta Ospitalean indarrean jarrita dago.</p> <p>Osasungintza pribatuan, aldiz, ez dago plank eta borondatezko kontua da.</p> <p>2009rako Anbulategian pediatria eta harrerako zerbitzuak ele bietan jasotzeko aukera izango dugu.</p>
EUSKALGINTZA	<p>Euskalgintzak ematen dituen zerbitzuen bidez umeengana, nagusiki, iristen da.</p> <p>Umeei zuzendutako zerbitzuekin eta hedabideekin, batez ere, asmatu du euskalgintzak. Erdaldunengana iristeko ia ez du ezer egin.</p> <p>Euskalgintzako erakundeek Arrasaten euren plan estrategikoa dute.</p> <p>Etorkizunean, euskalgintzaren borondatezkotasuna eta militantzia galtzen joango dira eta euskalgintzak eskaintzen dituen produktuak gehiago kontsumituko dira kalitatearengatik bestelako atxikimendurengatik baino.</p>
ERAKUNDE OFIZIALAK	<p>Udala eta Mankomunitatea hemengo administrazioak dira eta euskararekin lotutako erabakiak ere bertan hartzen dira.</p> <p>Gainerakoak (Posta, Notarioria, Epaitegia) Madrilgo administrazioaren mende daude. Euskararekin lotutako erabakiak Madrilen hartzen dira.</p> <p>Udalak lehendik ditu urratsak eginda zerbitzuak ele bietan ematera begira eta barruko funtzionamendua euskaraz, nagusiki, izatera begira. Barne-erabilera plana abian da.</p>
LAN-MUNDUA	<p>Bi langilelik bat industrian ari da lanean, batez ere 50 langile baino gehiagoko enpresatan (3tik 2).</p> <p>Lau enpresatik hiruk langile bakarra edo bi langile ditu. Gehienak hirugarren sektorekoak (denen %75).</p> <p>Erabilera-planak garatu dira enpresa handietan eta kooperatibetan. Udalaren ekimenak enpresa txikietara, nagusiki, bideratu dira.</p>
MERKATARITZA	<p>Kontsumo-ohiturak aldatzen ari dira: aisialdia + kultura + erosketak.</p> <p>Erdigunean, noizean behingo kontsumo ondasunen salmenta kontzentra daiteke eta auzoetan, berriz, eguneroko kontsumo ondasunena.</p> <p>Jarduera berriak agertuko dira: on-line dendak.</p> <p>Merkataritzan, gero eta gehiago, etorkinak izango ditugu lanean.</p>
MEDIAK	<p>Estatu mailako hedabideak, nagusiki, irakurtzen dira Arrasaten. Gaztelaniaz dira.</p> <p>Telebistei dagokionez, ETB ikusten du 2 ikus-entzulelik batek. Euskarazko kateak ikusten ditu 3 ikus-entzulelik batek.</p> <p>Hemengo irratia entzuten dira: Euskadi Irratia, Euskadi Gaztea, Radio Euskadi, Herri Irratia, Arrasate Irratia, etab. EAEn internet dago 3 etxetik baten.</p> <p>Arrasaten publizitate agentzia gutxi dago. Arrasateko enpresa handiek estatu mailako publizitate-agentzietara jotzen duten bitartean, enpresa txikiak bertakoetara jotzen dute.</p> <p>Etorkizunera begira, egunkarien merkatuak mantendu edo gora egingo du apur bat.</p> <p>Telebista digitala ezarriko da eta, horrekin, kanalak ugaritu egingo dira eta baita aukerak ere. Gaztelaniazkoak ugari izango diren bitartean, euskarazko aukera txikia izango dugu.</p>
KOMUNIKABIDEAK	<p>Autopista egiten ari dira eta 2007rako Gasteiza eta Donostiara eta toki horietatik hona erraz eta bizkor iristeko moduan izango gara.</p>



4.2 Baliabideak

DIRU ITURRIAK	Euskararen normalizazioa iristeko darabilgun diru-baliabideak erakunde hauetatik, nagusiki, datoz: Udala, Foru Aldundia eta Jaurlaritza. Udaletik, Foru Aldunditik eta Jaurlaritzatik orain banatzen diren diru-laguntzen antzekoak banatuko dira.
GIZA BALIABIDEAK	Ez da landu.
EUSKALGINTZA	Nekeza da gaur egun bazkideen inplikazioa lortzea, bai egitasmoak aurrera ateratzeko, bai organoetan parte hartzeko. Etorkizunera begira, profesionalizazio eta espezializaziorako joerak indartuko dira. Euskaltzaleen parte-hartze aktiboa nekezago lortuko da, baina aukera izango da euskalgintzako entitateetako sareak baliatzeko. Autofinantzatzeraz joko da.
HEZKUNTZA	Hemendik 5 urtera, maila guztietako ia irakasle guztiak euskaldunak izango dira. Material didaktikoak euskarazkoak eta kalitatezkoak izango dira hezkuntza maila guztietan, unibertsitatean eta lanbide heziketan izan ezik. Azken bi esparru hauetan ere nabarmen igoko da euskaraz prestatutako material kopurua.
AISIALDIA	Elkarteetako arduradunak profesionalizatzeko joera izango da. Tabernetan eta dendetan gero eta immigrante gehiago izango ditugu tabernari eta dendari lanak egiten.
LAN MUNDUA	EUSKALAN elkarteak indarberrituta dugu. Hurrengo urteetarako helburu du herriko eta bailarako enpresetan euskara-plan berriak ezartzea eta, lehendik martxan direnetan, finkatzea.
MERKATARITZA	Mankomunitatearen bidez bailaran zerbitzu ematen duten GATC-k eta Garapen Agentziak Arrasaten dute egoitza. Euskara sustatzeko ahaleginean, laguntza izan daitezke, baina zalantza dago eraginkor izango ote liratekeen.
HEDABIDEAK	Telebista- eta irrati-kate berriak izango ditugu hemendik gutxira. Euskarazko eskaintzak berdintsu jarraituko duen bitartean, ugari egingo da erdarazko eskaintza. Interneten gero eta aukera ugariagoa izango dugu. Euskarazko aukera ugari egingo da, nahiz eta erdarazkoen aldean txikia izaten jarraitu.
KOMUNIKABIDEAK	Errazagoa izango da bailarako herriekin dugun komunikazioa eta baita kosta aldera edo Arabara sartzeko eta handik gurrera etortzea.

5. IKUSPEGIA

EBPN-ren misioak esaten digu hemendik hogeitau urtera non egon nahiko genukeen eta ikuspegiak, berriz, **hemendik bost urtera non egon beharko dugun** hogeitau urtera begirako helburu hori lortzeko.

Hausnarketa estrategikoan bost urtera begirako ikuspegi hau marraztu dugu:

Orokorrean, norberaren euskararen garatuko ditugu harremanak, edozein izanda dugun euskara hori. Dakitenek euskalkia baliatuko dute. Dakitenek hika hitz egingo dute.

Lau esparru nagusi bereiztu ditugu:

- Etxe barruko erabilera.
- Etxetik kanpo.
- Erakunde pribatuen eskaintza.
- Erakunde ofizialen eskaintza.



5.1 Etxe barruko erabilera

Helduek umeeekin, ahal dutenean, beti euskaraz egingo dute; eta guztiek (euskaldunek eta erdaldunek) transmititu beharko dute euskara erabiltzeko dela, ez bakarrik jakiteko. Gurasoek D eredura bideratuko dituzte euren seme-alabak.

Heldu euskaldunek, euren artean ari direnean, %50ak euskaraz ia gehienetan hitz egingo dute, %25ak erdietan eta beste %25ak ia beti gaztelaniaz.

Familia euskalduna duten umeei eta gazteei, etxean, beti euskaraz egingo dute. Familia erdaldunetan, berriz, erdararen erabateko nagusitasuna "apurtuko" dugu: umeen eta gazteen arteko elkarrizketen %10a euskaraz izango da.

Helduek, urtean, liburu bat eta film bat euskaraz kontsumituko dute. Internetera sartzerakoan, %50a euskaraz sartuko da eta euskaraz erabiliko du internet. Euskaldunak diren etxeetan, irratia eta telebista piztuta daudenen, denboraren laurdenean euskarazko kateak egongo dira sintonizatuta.

Egunean, 750 euskarazko egunkari saldu eta irakurri beharko dira Arrasaten, eta Goienkariaren zabalkundea mantendu egingo da.

5.2 Etxetik kanpo

Umeei eta gazteei, kalean, dezente (%60) egingo dute euskaraz.

Heldu euskaldunak euskaldunekin berbetan ari direla, %60ak euskaraz egingo du ia beti. Beste %20ak erdietan, eta gainerako %20ak ia beti gaztelaniaz.

Euskaldunak euskaldunez eta erdaldunez osatutako taldean hizketan ari direnean, eta erdalduna ez bada mintzakide, euskaldunen %20ak solasaldia euskaraz garatuko du. Solaskidea erdalduna bada eta euskara ulertzen duena, euskaldunen %10a euskaraz mintzatuko zaio.

Erakunde ofizialekin eta pribatuekin dituen harremanetan euskaldunen %90ak harremanok euskaraz hasiko ditu. Solaskidea euskalduna bada, harreman motzetan %90ak euskaraz jarraituko du, nahiz eta beste aldekoak gaztelaniaz jardun. Harreman luzeetan, berriz, %70ak euskaraz jarraituko du.

5.3 Erakunde pribatuen eskaintza

Ahozko harreman motzetan, erakunde pribatuek %80an euskaraz hasiko dute elkarrizketa, bezeroa euskalduna izan ala ez. Bezeroak euskaraz erantzuten badu, elkarrizketen %50a euskaraz garatuko da.

Harreman luzeak direnean, berriz, erakunde pribatuek elkarrizketen erdiak euskaraz hasiko dituzte, bezeroa euskalduna izan ala ez. Bezeroa euskalduna bada, hasitako elkarrizketa horien %50a euskaraz garatuko da.

Erakunde pribatuek antolatuko dituzten kanpo ekintzetatik (hitzaldiak, ikastaroak, jaialdiak...), hirutik bat euskaraz izango da.

Erakunde pribatuek, harreman idatzietan, euskara batua edo euskalkia erabiliko dute.



Hiru erakunde pribatutik batek seinale, inprimaki... gehienak (%66-%100) euskaratuta izango ditu. Bi erakunde pribatutik batek seinale, inprimaki... erdiak euskaratuta izango ditu. Sei erakunde pribatutik batek seinale, inprimaki... gehienak gaztelaniaz soilik izango ditu.

Bost erakunde pribatutik batek informazio zehatz gehiena (instrukzioak, liburuxkak, mezuak, etab.) euskaraz emango du. Bost erakunde pribatutik hiruk informazio zehatzaren erdia emango du euskaraz. Bost erakunde pribatutik batek informazio zehatzik gehiena gaztelaniaz soilik emango du.

Publizitatea erakunde pribatuen laurdenak euskaraz bakarrik egingo du, eta gainontzeko guztiek ele bietan.

5.4 Erakunde ofizialen eskaintza

Erakunde ofizialek ahozko harremanik gehienak (%66-%100) euskaraz hasiko dituzte, bezeroa euskalduna izan ala ez. Harremanak motzak badira eta bezeroa euskalduna bada, elkarrizketen %50a euskaraz garatuko da. Harremanak luzeak badira eta bezeroa euskalduna bada, hiru elkarrizketatik bat euskaraz garatuko da.

Erakunde ofizialek antolatuko dituzten kanpo ekintzetan (hitzaldiak, jaialdiak, kirol emankizunak...), hiru ekintzatik bat euskaraz egingo dute.

Erakunde ofizialek harreman idatzietan batua erabiliko dute. Erakunde ofizialetan seinale, inprimaki... gehienak euskaraz egongo dira. Informazio zehatza (instrukzioak, liburuxkak, mezuak, etab.), berriz, %20a euskaraz bakarrik egongo da, eta %70a ele bietan (euskara eta gaztelania modu orekatuan erabilia). Publizitatea euskaraz egingo da beti.

6. ESTRATEGIA

Estrategian irizpideak finkatu ditugu hurrengo bost urtean lortu behar ditugun helburuak lortu ahal izateko, marraztu dugun eszenategiaren barruan. Sei atal landu ditugu, hiru kanpora begirakoak eta beste hiru barrura begira daudenak:

- **Kanpora begirakoak: Merkatua** (nori begira egingo dugun lan), **asetako premia** (merkatu horrek zergatik hartuko duen gure eskaintza) eta **produktua / soluzioa** (zer saldu behar dugun).
- **Barrura begirakoak: gaitasunak** (nola egin jakin), **prozesu giltzarriak** (behin eta berriro errepikatuko direnak) eta **baliabideak**.

Hausnarketa Estrategikoan, merkatuarekin lotutako hiru atalak jorratu eta proposamenak egin ziren. Baliabideekin lotutakoak ere jorratu ziren.

Sei atal hauek zerikusi zuzena daukate Plan Estrategikoarekin: Plan Estrategikoa atal hauen garapen zehatza da.

6.1 Merkatua

Ikuspegiaren atalean esan bezala, EBPN-ren merkatu orokorra Arrasateko bizilagunak dira.



6.1.1 Bereiztu ditugun merkatu-segmentuak

Hausnarketa estrategikoan, bizilagunen merkatuan bost merkatu-segmentu bereiztu ditugu. Hona hemen, lehenetsunaren arabera hurrenkeran jarrita:

- **Arrasaten bizi diren “heldu” euskaldunak.**
- **Arrasaten bizi diren “umeak”.**
- **Arrasaten jarduera duten erakunde pribatuak**, negozio moduan antolatutakoak (SA, SL, kooperatibak, etab.) eta elkarteak.
- **Ikastetxeak eta erakunde ofizialak.** Ikastetxeek euskara euren misioan guztiz txertatuta dute eta erakunde ofizialek, berriz, legea betetzeko euskararen normalizazioa lortu beharrean dira.
- **Heldu erdaldunak.**

6.1.2 Heldutzat eta umetzat zer hartu dugun

Helduen eta umeen arteko bereizketa egiteko irizpide hau erabili dugu:

- **Ume dira** zero eta hamar luze urte bitarteko bizilagunak. Hizkuntza ohitura batzuk dituen giza taldean jaio dira eta ohitura horiek onartuta bizi dira, harik eta hizkuntza hautuak modu kontzientean egiten hasi arte.
- **Heldutzat** hartu ditugu hizkuntza hautuak egiten dituzten bizilagunak.

6.1.3 Erakundetzat zer hartu dugun

Erakundetzat ditugu publikora begirako jarduera egiten duten enpresa, elkarte eta entitate guztiak, kapital pribatuarekin eratutakoak edota kapital publikoarekin eratutakoak.

6.2 Gaitasunak, prozesuak eta baliabideak

Atal honetan jasotzen den proposamena behin-behinekoa da eta, EBPN-ren Plan Estrategikoa garatzen denean, sakondu beharko dugu.

Proposamen honetan ageri da zer gaitasun, prozesu eta baliabide beharko ditugun EBPN-ren estrategia martxan jartzeko; hau da, aukeratutako merkatuari aukeratutako produktua saltzeko.

Atal hau jorratu zen Plan Estrategikoa prestatzeko talderik egokiena zein izango den pentsatzeko eta, Plan Estrategikoan puntu hauek garatzen direnean, nondik nora ibiliko garen antzemateko.

Ikusi dugunez, merkatu guztietan egin beharreko urratsak berberak dira: lehenik eta behin, produktua merkatuari saldu behar zaio; gero, euskararen erabilera erraztu behar zaio, erabiltzera bultzatu eta emaitzak (erabilera) neurtu; azkenik, aukeratutako estrategia egokia izan ote den jakiteko, merkatuaren satisfazioa neurtu behar da.

Antzemandako hiru urrats nagusi edo orokor horietan zehaztu dugu EBPN-k zer gaitasun erabili beharko dituen, zer prozesu martxan jarri/menperatu beharko dituen eta, azkenik, zer nolako baliabideak beharko dituen.



Merkatua	Arrasaten bizi diren "heldu" euskaldunak	Arrasaten bizi diren "umeak"	Arrasaten jarduera duten erakunde pribatuak	Ikastetxeak + erakunde ofizialak Bai ikastetxeetan, bai erakunde ofizialetan, euskara euren misioaren zati bat da.	Arrasaten bizi diren heldu erdaldunak
Produktua	Euskaraz egitea eta eragitea	Euskaraz egitea beti	Euren jardunean euskara lehenestea	Euren jardunean euskara lehenestea	1. Euskaldunenganako errespetua 2. Euskararen garrantzia transmititzea (ondorengoenganako ardura)
Balioa	Guztion etorkizuna eraiki euskalduntasunean ² : <ul style="list-style-type: none">• Ondorengoena• Baita norberarena ere	Talde bateko kide sentitzea: <ul style="list-style-type: none">• Prestigioa• Harrotasuna	Misioan lagungarri. Misioa edozein izan ere, euskara lagungarri izango da.	Misioa betetzea Sinesgarri eta eredu izatea	1. Integrazioa 2. Ondorengoaren etorkizuna
Gaitasunak	<ul style="list-style-type: none">• Marketing/Komertziala: sektoreak antzeman (merkatua ezagutu), mezua(k) egokitu/ asmatu, kanpainak diseinatu, jakin zeinek/ noiz/ non behar duen zer laguntza, aisialdi euskalduna umeei saldu, "vis a vis" saldu.• Psikologia: helburuak adostu, laguntza eskaini, hartutako konpromisoen jarraipena egin... gure merkatua mindu barik; sareak antolatu, martxan jarri eta kudeatu, adorea eta kemena eman.• Auditoriak diseinatu.				
Prozesuak	<ul style="list-style-type: none">• Marketing/Komertziala: mezua egokitu kasu bakoitzari, mezuak aukeratu, kanpainak diseinatu, adostu helburuak, neurketak... erraztasunak eskaini.• Auditoriak: kanpainen eragina, erabilera, satisfazioa.• Psikologia: banan-banan, hau da, pertsonaz pertsona helburuak jarri eta neurtu.• Erakundeei lagundu: paisaia euskaldundu, "front office"³-a egokitu: jarrera eta ezaguera aldetik; euskararekiko konpromisoa kreditatzen duten agiriak lortzen lagundu, euskara-planak sortzen lagundu, testuen egokitze/euskalduntze azkarra.• Orokorra: kanpainen koherentzia mantendu.• EBPN-ren kudeaketa: Eszenategia zaindu, proiektuak zaindu.				
Baliabideak	<ul style="list-style-type: none">• Erakundeak: Athlon, Eskola, Udala, GoiTB, Txatxilipurdi, media euskaldunak, sindikatuak, alderdi politikoak, GATC, katekesia.• Erakunde barrurako: euskara-planak garatzeko eurek dituzten baliabideak.• Sareak: euskaltzaleen sareak, auditoreak, udal-sarea, merkatu "antenak".• Eratu beharreko zerbitzuak: egokitze/euskalduntze zerbitzu azkarra, prestatze-taldeak.• EBPN: Aholku Batzordea, bulego teknikoak.				


² Guztion etorkizuna eraiki euskalduntasunean. Ideia horrek bi esanahi biltzen ditu: euskara abantaila izango da etorkizunerako eta etorkizuna bera euskaraz garatuko dugu.

³ Front office: Publikoari begira lan egiten duten langileak.



7. PLAN ESTRATEGIKOA

7.1 Esparruak



2007-2010 eperako esparru hauek antzeman dira:

- *Etxe barrukoa eta aisialdi librea.* Etxe barruko erabilera guztia eta norberaren aisialdi libreak.
- *Helduen eta gazteen aisialdi antolatua.* Helduei eta gazteei hainbat lekutatik eskaintzen zaizkien jarduerak, herriko taldeen barne-bizitza eta aisialdi akademikoak.
- *Umeen aisialdi antolatua.* Ludotekak, udalekuak, tailerrak... beti ikastetxeetako azpiegituretatik kanpo.
- *Hedabideak.* Prentsa, ikus-entzunezkoak, internet eta teknologia berriak.
- *Derrigorrezko hezkuntza.* Ikastetxeetan egindako jarduera guztiak, akademikoak eta aisialdikoak.
- *Lantoki txikiak (enpresa txikiak eta jendeari begira lan egiten duten establezimenduak):* enpresa txikiak eta ertainak, dendak, tabernak, gremioak, bulegoak...
- *Euskara Planak.* Arrasaten EBPNTik kanpo garatzen ari diren Euskara Planekiko koordinazioa: enpresa handiak, Udala, Mankomunitatea, Osakidetza, Justizia, Ertzaintza, Bidegi, Gipuzkoako Foru Aldundia...



7.2 2006. urtea: oinarriak eta esparruen egoera

2006. urtean esparru bakoitzean ditugun oinarriak eta esparruok zer egoera bizi duten jaso dugu atal honetan. Oinarrietako asko eta asko aurreko urteetan jarritakoak eta landutakoak dira.

- *Etxe barrua eta aisialdi librea*. Lan gutxi egin da esparru honetan, ia batere ez. Egin diren ahaleginak berriak dira, hiruzpalau urtetik honakoak.
- *Heldu eta gazteen aisialdi antolatua*. Eskaintza egon da, baina proiektu bakar baten barruan uztartu barik.
- *Umeen aisialdi antolatua*. 90. hamarkadan herrian planteamendu sendoa egin zen esparru honetan. Gaur egun, proiektu sendoa da. Alabaina, ez da iristen Arrasateko ume guztiengana neurri berean, auzoek (Erguin, San Andres eta Musakola) ez dute urte osoko zerbitzurik.
- *Hedabideak*. 90. hamarkadan hasitako proiektua. Sasoi hartan apustu estrategikoa egin zuten Arrasateko Udalak, AED-k eta ikastetxeek, Arrasateko etxeetan herri eremuko euskarazko informazioa arrasatearrei emateko. Proiektu sendoa izan arren, oraindik ere erakundeen babesa behar du garatzen joateko.
- *Derrigorrezko hezkuntza*. Ikastetxeek euskara-planen bidez egindako ahaleginei Udalak egiten dien eskaintza gehitzen zaie. Eskaintza horrek indartu egiten ditu ikastetxe bakoitzeko proiektuak.
- *Lantoki txikiak (enpresa txikiak eta jendeari begira lan egiten duten establezimenduak)*. 90. hamarkadan hasitako proiektua. Euskara esparru sozioekonomikoan normalizatzeko apustu estrategikoa egin zuten Udalak, AED-k eta ikastetxeek. Normalizazio-lana egin den arren, ez da orokortu.
- *Euskara Planak*. Gaur egun, proiektu sendoak dira erabilera-planak eta enpresa-instituzio bakoitzean modu autonomoan garatzen dira. Udalari dagokio eurekin harremanetan egotea, elkarlanerako bideak zabaltzea.

7.3 2007. urteko norabidea

2007. urtean, zenbait esparrutan aurreko hamarkadetatik datozen oinarriek bere horretan jarraituko dute, hauetan, hain zuzen ere: Hedabideak, Hezkuntza eta Euskara Planak.

Beste esparru batzuetan, berriz, oinarrietan aldaketak egitea proposatzen dugu; hauetan, hain zuzen ere:

- *Etxe barrua eta aisialdi librea*. Etorkizun hurbilean esparru estrategikoa izango dela aurreikusten da, horregatik, lehenik eta behin, esparrua aztertuko da, esparrua ezagutu eta horren araberrako planteamendu berriak egiteko.
- *Heldu eta gazteen aisialdi antolatua*. Esparru estrategikoa izango da. Dagoeneko esparruan lanean dabiltzan eragileen arteko elkarlana eta koordinazioa sustatuko



da, abian dauden proiektuen uztartze-lana egiteko eta ikusten diren hutsuneei aurre egiteko.

- *Umeen aisialdi antolatua*. Eskaintza orokortzeko bideak ikusi beharko dira.
- *Lantoki txikiak (enpresa txikiak eta jendeari begira lan egiten duten establezimenduak)*. Normalizazio-lana orokortzeko bideak zabaldu behar dira.

7.4 2008-2010. urtetako norabidea

Datozen urtetara begira, esparruak (eta azpiesparruak) hiru ataletan sailka genitzake:

- Esparru eta azpiesparru “berriak”, orain arte gutxi landutakoak: **etxe barrua eta aisialdi librea, herri taldeak eta aisialdi akademikoa, lantoki txikiak**. Hauek dira Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak ekartzen dituen “izar berriak”, goitik behera asmatu beharrekoak.
- Sakondu beharreko esparruak: **gazteen aisialdi antolatua, umeen aisialdi antolatua eta publikora lan egiten duten establezimenduak**. Esparru hauetan lehen ere eragin izan da, eta datozen urteetan zabaltzeko premia dute.
- Aldaketa handirik gabeko esparruak: **hedabideak, derrigorrezko hezkuntza, euskara planak**. Orain arteko ibilbidea jarraituko dute.

7.4.1 Etxe barrua eta aisialdi librea

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren izarretako bat, garapen handiena behar duen esparrua delako: ezer gutxi dago eginda, garatzeko proiektu gutxi daukagu esku artean eta esparru ezezagunena izango da, seguruenik.

2007. urtean oinarrizko proiektua garatuko da: gaur eguneko egoeraren azterketa egin, adierazleak bildu, egoera iraultzeko ideiak asmatu, proiektuak (plana) osatu eta baliabideak antolatu.

Oinarrizko proiektu honek ez du asko eskatzen baliabide ekonomikoen aldetik. Zer garapen izango duen kontuan hartuta, AEDren laguntzarekin burutu beharko da giza baliabideen aldetik.

2008. urtetik aurrera, berriz, oinarrizko proiektu honek diseinatutako plana martxan jarriko dugu.

7.4.2 Helduen eta gazteen aisialdi antolatua

Esparru honetan, datozen urteetan bi puntutan eragin nahi da bereziki: gazteen aisialdi antolatuan eta herriko talde eta aisialdi akademikoan.

Gazteen aisialdi antolatuan martxan dauden jarduerak uztartuko dira plan baten barruan, egiten den lanaren eragina areagotzeko, gazte-jende gehiagorengana iristeko.



Herriko taldeekin eta aisialdi akademikoarekin, berriz, plan bat jarriko da martxan. 2007. urtean azpiesparrua modu zehatzean aztertuko da: talde guztiak antzeman, zenbat lagun mugitzen duten, jarduera mota, hizkuntza erabilera... eta plan bat egingo da herrian dagoeneko dauden ekimenak eta esparru honetako helburuak lortzeko sor daitezkeenak uztartzeko.

7.4.3 Umeen aisialdi antolatua

Datozen urteetan, esparru honetan dagoen gabeziarik handiena konponbidean jartzea espero dugu: gaur egungo jarduerarik gehienak erdigunean egiten dira eta auzoetako umeek ez dute ia eskaintzarik. Konponbidea etorriko da jarduerak gunee berrietara hedatzen baditugu, eta ume gehiagorengana iristen bagara.

7.4.4 Hedabideak

Esparru honetarako ez da aurreikusten aldaketa handirik: gaur eguneko partaideek jarduera berbera izango dute, eta erakundeek proiektu honen garapena babestuko dute, orain arte egin duten moduan.

Dena dela, esparru honen gai dinamikoena landuko da: komunikatzeko etorri diren, datozen eta etorriko diren teknologia berriak.

2007. urtean esplorazio proiektua garatuko dugu: teknologien gaur eguneko egoeraren azterketa egin, Arrasateko biztanleengan zein eragin izan dezakeen eta baliatzeko aukerak zein diren aztertu eta, beharbada, proiektuak (plana) osatu.

2008. urtetik aurrera, ikusitakoaren arabera, proiektu berriak martxan jarriko ditugu.

7.4.5 Derrigorrezko hezkuntza

Esparru honetarako ez da aurreikusten aldaketarik: gaur eguneko partaideek jarduera berbera izango dute, eta erakundeek esparruaren garapena babestuko dute, orain arte egin duten moduan.

7.4.6 Lantoki txikiak (enpresa txikiak eta jendeari begira lan egiten duten establezimenduak)

Esparru hau izango da datozen lau urterako beste izar bat.

Alde batetik, enpresa txikietan normalizazio planak martxan jarriko dira. Horretarako, 2008. urtean hasiko da aurreneko esperientzia pilotua enpresa gutxi batzuekin. Hurrengo urteetan esperientzia hau zabaltzen joango da.

Jendeari begira lan egiten duten establezimenduetan, berriz, lehenik dauzkagun esperientziak orokortuko ditugu.

7.4.7 Euskara Planak

Sinergiak bilatzeko, datozen urteetan martxan dauden Euskara Planekin koordinazio lanak aurreikusten dira: elkarren ezagutza izan, elkarren lana aprobetxatzeko.



Koordinazio lanak arinak izango dira, eta baliabide aldetik ez da asko behar izango. Arrasateko Udalaren Euskara eta Kultura Sustaperako Sailak bere esku hartuko du lan hau.

7.4.8 Zeharkako jarduerak

Azkenik, zeharkako jarduerak aipatuko ditugu. Alde batetik, esparru guztiek zaindu beharko dute inguruko esparruetan egiten ari dena: elkarren ezagutza izan, elkarren lana aprobetxatzeko.

Bestetik, Arrasateko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusi honetan mundraueraz hitz egiteari eman nahi diogun bultzada dago. Puntu honek bereziki Hedabideak eta Derrigorrezko hezkuntza esparruei eragingo die.



ERANSKINA: ESPARRUAK BANAN-BANAN

Etxe barrua eta aisialdi librea

Merkatua	Arrasateko helduak, gazteak eta umeak; etxe barruan eta norberaren aisialdi librean.
Helburuak	<p>Helduek umeekin, ahal dutenean, beti euskaraz egingo dute; eta guztiek (euskaldunek eta erdaldunek) transmititu beharko dute euskara erabiltzeko dela, ez bakarrik jakiteko.</p> <p>Heldu euskaldunek, euren artean ari direnean, %50ak euskaraz ia gehienetan hitz egingo dute, %25ak erdietan eta beste %25ak ia beti gaztelaniaz.</p> <p>Familia euskalduna duten umeek eta gazteek, etxean, beti euskaraz egingo dute. Familia erdaldunetan, berriz, erdararen erabateko nagusitasuna "apurtu" beharko dugu: umeen eta gazteen arteko elkarrizketen %10a euskaraz izango da.</p> <p>Umeek eta gazteek, kalean, dezente (%60) egingo dute euskaraz.</p> <p>Heldu euskaldunak euskaldunekin berbetan ari direla, %60ak euskaraz egingo du ia beti. Beste %20ak erdietan, eta gainerako %20ak ia beti gaztelaniaz.</p> <p>Euskaldunak euskaldunez eta erdaldunez osatutako taldean hizketan ari direnean, eta erdalduna ez bada mintzakide, euskaldunen %20ak solasaldia euskaraz garatuko du. Solaskidea erdalduna bada eta euskara ulertzen duena, euskaldunen %10a euskaraz mintzatuko zaio.</p>
Balioa	<p>Euskara gure hizkuntza da, gorde eta zaindu beharrekoa.</p> <p>Etorkizuna, umei etorkizuna bermatu behar zaie, etorkizuna euskaraz dator.</p> <p>Euskaraz gozatu egiten da, sentimenduak azaltzen dira, komunikatzen da, maitasuna eta afektibitatea adierazteko bidea da.</p> <p>Integrazio pertsonala.</p>
Oraingo egoera	<p>Euskara ikasteko askotariko eskaintza dago.</p> <p>Helduen eta ume txikien arteko harremanei begira egin da lan, Mankomunitateak bideratuta.</p> <p>Esparruaren zati handiak oraindik ukitu barik daude (gazteek euren artean; helduak ume koxkorrekin eta gazteekin; helduen, gazteen eta umeen aisialdi librea).</p> <p>Egindako lana eragin txikikoa izan da, esparruaren zati txiki bati eragin diolako bakarrik.</p>
2007-2010 proiektuak	<p>Esparruaren azterketa.</p> <p>Ondorioetan oinarritutako plana.</p>



Heldu eta gazteen aisialdi antolatua

Merkatua	Arrasateko helduak eta gazteak, etxetik kanpoko aisialdian
Helburuak	<p>Helduek, urtean, liburu bat eta film bat euskaraz kontsumituko dute. Internetera sartzera, %50a euskaraz sartuko da eta euskaraz erabiliko du internet.</p> <p>Umeek eta gazteek, kalean, dezente (%60) egingo dute euskaraz.</p> <p>Heldu euskaldunak euskaldunekin berbetan ari direla, %60ak euskaraz egingo du ia beti. Beste %20ak erdietan, eta gainerako %20ak ia beti gaztelaniaz.</p> <p>Euskaldunak euskaldunez eta erdaldunez osatutako taldean hizketan ari direnean, eta erdalduna ez bada mintzakide, euskaldunen %20ak solasaldia euskaraz garatuko du. Solaskidea erdalduna bada eta euskara ulertzen duena, euskaldunen %10a euskaraz mintzatuko zaio.</p>
Balioa	<p>Ondo pasatzea.</p> <p>Talde bateko kide izatea.</p>
Oraingo egoera	<p>Arrasateko aisialdiko eskaintza ugaria da, eragile asko dabil lanean eta esparru honetan erabiltzen diren aurrekontuak (publikoak eta pribatuak) handiak dira.</p> <p>Alabaina, ez daude EBPN-k esparru honetarako jarri dituen helburuekin lerrotuta.</p>
2007-2010 proiektuak	<p>Esparruaren azterketa egingo da.</p> <p>Ondorioetan oinarritutako plana idatziko da. Planaren muina izango da elkarlana eta koordinazioa lortzea.</p>

Umeen aisialdi antolatua

Merkatua	Arrasateko umeak (0-12 urte bitartekoak).
Helburua	Umeek, kalean, dezente (%60) egingo dute euskaraz.
Balioa	<p>Ondo pasatzea.</p> <p>Talde bateko kide izatea.</p> <p>Konplizitatea.</p>
Oraingo egoera	<p>Orokorrean, eskaintza sendoa da, ondo antolatuta dago.</p> <p>Urte guztiko eskaintza dago Arrasateko erdigunean eta Santa Marinan (ludoteken bidez ematen da). Ez dago era honetako eskaintzarik Musakolan, San Andresen eta Erguinen.</p> <p>Egutegian sakabanatutako eskaintza dago herri osora iristen dena.</p>
2007-2010 proiektuak	Eskaintza herri guztira zabaltzea.



Hedabideak

Merkatua	Arrasateko helduak, gazteak eta umeak.
Helburuak	<p>Euskaldunak diren etxeetan, irratia eta telebista piztuta daudenen, denboraren laurdenean euskarazko kateak egongo dira sintonizatuta.</p> <p>Egunean, 750 euskarazko egunkari saldu eta irakurri beharko dira Arrasaten, eta Goienkariaren zabalkundea mantendu egingo da.</p> <p>Helduek, internetera sartzekoan, %50a euskaraz sartuko da eta euskaraz erabiliko du internet.</p>
Balioa	<p>Norberaren komunikazio beharrak asetzeko aukera.</p> <p>Gertutasuna.</p> <p>Aukera proiektu horretan aktiboki parte hartzeko.</p> <p>Integrazioa.</p> <p>Bailara kontzeptua garatzen laguntzea.</p>
Oraingo egoera	<p>Daukagu bailara mailako hedabide-sarea. Medio guztiak hartzen ditu: prentsa, telebista, irratia eta internet-a.</p> <p>Bailaraz gaindiko eskaintza ere badago, baina ez dago orokortuta (Berria, aldizkariak, ETB eta Euskadi Irratia).</p>
2007-2010 proiektuak	<p>Lehendik datozen proiektuak indartu.</p> <p>Bailaraz gaindiko eskaintzan, harpidedunak eta ikus-entzuleak irabazteko ekintzak egitea.</p>

Derrigorrezko hezkuntza

Merkatua	Arrasateko umeak eta gazteak.
Helburuak	Gurasoek D eredura bideratuko dituzte euren seme-alabak.
Balioa	<p>Taldeko kide izatea.</p> <p>Etorkizuna.</p> <p>Jarduera eta eredu hezigarriak eta ludikoak euskaraz eskaintzea.</p>
Oraingo egoera	<p>Ikastetxeek modu autonomoan garatzen dituzte euren erabilera-planak. Gaur egun, orokorrean, proiektu sendoak dira.</p> <p>Alabaina, kanpoko baliabideen beharra dute proiektu horiek indartzeko eta horretara dator, hain zuzen ere, Udalaren eskaintza.</p>
2007-2010 proiektuak	Proiektu horiek indartzeko guztientzat baliagarriak diren proposamenak bideratzea.



Lantoki txikiak

Merkatua	50 langiletik beherako enpresak eta, bereziki, publikora begira lan egiten duten establezimenduak.
Helburuak	<p>Ahozko harreman motzetan, erakunde pribatuek %80an euskaraz hasiko dute elkarrizketa, bezeroa euskalduna izan ala ez. Bezeroak euskaraz erantzuten badu, elkarrizketen %50a euskaraz garatuko da.</p> <p>Harreman luzeak direnean, berriz, erakunde pribatuek elkarrizketen erdiak euskaraz hasiko dituzte, bezeroa euskalduna izan ala ez. Bezeroa euskalduna bada, hasitako elkarrizketa horien %50a euskaraz garatuko da.</p> <p>Erakunde pribatuek antolatuko dituzten kanpo ekintzetatik (hitzaldiak, ikastaroak, jaialdiak...), hirutik bat euskaraz izango da.</p> <p>Erakunde pribatuek, harreman idatzietan, euskara batua edo euskalkia erabiliko dute.</p> <p>Hiru erakunde pribatutik batek seinale, inprimaki... gehienak (%66-%100) euskaratuta izango ditu. Bi erakunde pribatutik batek seinale, inprimaki... erdiak euskaratuta izango ditu. Sei erakunde pribatutik batek seinale, inprimaki... gehienak gaztelaniaz soilik izango ditu.</p> <p>Bost erakunde pribatutik batek informazio zehatz gehiena (instrukzioak, liburuxkak, mezuak, etab.) euskaraz emango du. Bost erakunde pribatutik hiruk informazio zehatzaren erdia emango du euskaraz. Bost erakunde pribatutik batek informazio zehatzik gehiena gaztelaniaz soilik emango du.</p> <p>Publizitatea erakunde pribatuen laurdenak euskaraz bakarrik egingo du, eta gainontzeko guztiek ele bietan.</p>
Balioa	Euren misioan laguntzea.
Oraingo egoera	<p>Batez ere, merkataritzan eta zerbitzu-enpresetan normalizazio-planak jarri ditu abian Udalak eta hizkuntza aholkularitza eskaini du.</p> <p>Alabaina, txikia da era honetako egitasmoak garatu dituzten eta aholkularitza erabili duten establezimenduen portzentajea.</p>
2007-2010 proiektuak	<p>Merkataritzan eta zerbitzu-enpresetan egindako lana esparrura zabaldu eta orokortzea lortu.</p> <p>Enpresa txiki eta ertainetan esperientzia pilotu bat garatzea.</p>



Euskara Planak

Merkatua	Euskara Plana duten enpresetan: planen arduradunak. Euskara Plana ez duten enpresetan: gerenteak.
Helburuak	<p>Ahozko harreman motzetan, erakunde pribatuek %80an euskaraz hasiko dute elkarrizketa, bezeroa euskalduna izan ala ez. Bezeroak euskaraz erantzuten badu, elkarrizketen %50a euskaraz garatuko da.</p> <p>Harreman luzeak direnean, berriz, erakunde pribatuek elkarrizketen erdiak euskaraz hasiko dituzte, bezeroa euskalduna izan ala ez. Bezeroa euskalduna bada, hasitako elkarrizketa horien %50a euskaraz garatuko da.</p> <p>Erakunde pribatuek antolatuko dituzten kanpo ekintzetatik (hitzaldiak, ikastaroak, jaialdiak...), hirutik bat euskaraz izango da.</p> <p>Erakunde pribatuek, harreman idatzietan, euskara batua edo euskalkia erabiliko dute.</p> <p>Hiru erakunde pribatutik batek seinale, inprimaki... gehienak (%66-%100) euskaratuta izango ditu. Bi erakunde pribatutik batek seinale, inprimaki... erdiak euskaratuta izango ditu. Sei erakunde pribatutik batek seinale, inprimaki... gehienak gaztelaniaz soilik izango ditu.</p> <p>Bost erakunde pribatutik batek informazio zehatz gehiena (instrukzioak, liburuxkak, mezuak, etab.) euskaraz emango du. Bost erakunde pribatutik hiruk informazio zehatzaren erdia emango du euskaraz. Bost erakunde pribatutik batek informazio zehatzik gehiena gaztelaniaz soilik emango du.</p> <p>Publizitatea erakunde pribatuen laurdenak euskaraz bakarrik egingo du, eta gainontzeko guztiek ele bietan.</p>
Balioa	Euren misioan laguntzea
Oraingo egoera	Arrasateko enpresa handirik gehienek Euskara Plana dute (Fagor Electrodomésticos, Fagor Electrónica, Caja Laboral, Mondragón Corporación Cooperativa...) Instituzio publiko batzuek ere martxan dituzte erabilera-planak: Arrasateko Udala, Mankomunitatea, Osakidetza, Ertzaintza, Justizia.
2007-2010 proiektuak	Koordinazio lana.